

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anjel Elizalde Elizalde

*Donostia,
Gipuzkoa
(1922-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Pasai Antxon jaioa, lau urte zituenetik bizi da Altzan, Akular baserrian. Aiton-amonekin bizitzera joan zen, eta bertan geratu. Hiru senide ziren. La Sallen ikasi zuen, Herreran. Ezpata-dantzari ibili zen gaztetxotan. Soldadu zegoela, Aiako Harrian tunela egiten ibili zen. Baserritik atera du bizimodua. Pasaiara joaten ziren tratuarekin. Hernaniko Juani Lujanbiorekin ezkondu zen, eta zortzi seme-alaba izan zituzten. Ehiza gustatzen zaio.

Zintak

DON-101

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-13
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Aita Ameriketara ibilia

- **Erref:** DON-101/002
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:00:42. **Bukatu:** 00:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Bere ama Altzako Akular baserrikoa zen. Aita Pasaiakoa zen, baina Ameriketara ibilia. Ezkontzeko etorri zenean, geldiarazi egin zuten gurasoek. Lau urterekin aitona-amonekin bizitzera joan zen, Altzara. Hiru senide dira.</p>

2. Akular baserriaren historia

- **Erref:** DON-101/004
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:39

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Akular baserria nolakoa zen. Dirudun fama zuten. 1962an berritu zuten. Bi bizitzakoa zen. Akular Handi eta Txiki.

3. Lesakara gauez, artoarekin

- **Erref:** DON-101/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gerraostea baserrian: Lesakara nola joan zen gauez, irinaren bila errotara. Kupo. Artoa entregatu beharra. Errazionamendua. Ogia eta taloa.</p>

Transkripzioa

-Ni hemendikan Lesaka joana nao, gerra denboan, zea, artua... Kupua genun, eta kupua kunplitu, bete eta oandikan artua etxian. Eta hemendikan Lesakara mendiz, gabez. Hartu bihorrak, zaku artua, ta iriñan billa.

-Iriñan billa?

-Bai.

-Hemen errotak itxita zeuden, ala?

-Errota bakarra zeon hor, baiña kartilla bihar zan /bihartzan/ errota joateko ta...

-Eta Lesakaraiño.

-Kartilla betia! Betia, ta etxian oaindik artua... Hemen iten genitun ba hiru sail, onak. Ta geo kupua, kupua... e, Servicio Nacional de Trigo. Eaman in bihar izaten zan "tanto por cientua". Eta ez... gelditzen bazitzaizun, ematen zizuten kupua, ta kupua bete eta oandikan artua, eta aber... ta etxian zea, taloik ez. Geo nola genun "este"... Ni bizitu nitzan ba bi osabakin, izebakin, aitton-amonak hil zian /hiltzian/ eta e, klasifikaziyua "de primera". Ta holako ogi tako bat, ttiki bat ematen ziuten bakoitzai. Joe, bueno!

-Ta horrekin?

-Nik, e, ze esango (d)izut? Gosia... guk bestiena, kaleko jendiakin konparatzeko gutxiyo pasa genun, baiño nahikua pasa genun, e! Gerra denboan esate(n) (d)izut.

-Bai, bai. Eta ez zenuten ogi txuriya ekartzen, estraperlokua?

-Ezta... ekartzen genun iriña! Iriña, talua iteko. Ba jode, hori ya soluziyua zan! Talua izan ezkeo ez zeon /etzeon/ kuidadoik. Ogiya pusketa bat ematen ziuten, razionamentua primerakua zuten, eta pusketa bat, eta nik pentsatzen det ogiya beltza ta ez takit zerekin eiña zeon, eta gutxi ematen zutela, bestela asko ematen bazuten akabatuko ziuten ta. Nik pentsatzen det hala izango zala, bai. Zerekin iten zuten.

4. Gerrako itsasontziak eta hegazkinak

- **Erref:** DON-101/008
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:09:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Gerra garaian, España itsasontziak eraso egiten zuen San Markos gotorlekura, eta beraiek erdian. Babeslekua. Sirena. Hegazkinen bonbek gizon bat hil zuten Pasaian.

Transkripzioa

-Barkuak astintzen ziun baztar hau, barkotikan. Kañonazuk.

-“Cervera”?

-“España” esaten zuten ai zala ta ez takit. Cervera ez al zeon /altzeon/ ba zeakin, gobiernuakin? Baiño ez zun /etzun/, ez zun /etzun/ karaik ematen. Españak... esaten zuten España zeola hor, itsasua hor dago...

-Bai.

-Eta joe...

-Eta honaiño iristen zian kañonazuak?

-Buuu. Joe, hor fuertia, San Marcos dago hor. Horri sartzen xizkiaten... ta batzuk birian sartzen zian /sartzentzian/. Eta baiña bildurgarriya zan barkua, e! Joeee...

-Ta zuek hemen erdiyan, orduan.

-Bai ba. Hemen pasatzen zian soiñu earrakin: ttuttuttu... bla! Jode!

-Eta ze...

-Guk in genun parapetua hor.

-Nola?

-Ignorantiak! Ba aurrian iten genitun metak hor, ilera bat, metak, eta atzeneko meten kontra hua apuntalatu ta lurrakin ta. Sirena jotzen zuten, barkua azaltzen zanian sirena jotzen zun. Ta hara jartzen giñan. Ze inorantziya! Ze... ze pildorazuak. Buf. Barkua gogorra zan, hara, bildurgarriyak zan hua! Abioiyak´e bai. Lenbiziko abioiyak... “Oi, ze bota dik horrek?”. Eta Pasaiyan eroi zian hiru, hiru bonba. Eta ikusi genitun. Gu ganau jetena iten ai giñan, eta “oi, ze, abioi horrek zerbait bota du!”. Beltx-beltxak eta... banba, banba! Pasaiyan eroi zian, eta gizon bat hil zuten / hiltzuten/. Bai.

5. Osaba zinegotzia, nazionalista

- **Erref:** DON-101/010
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Nazionalistak ziren familian. Osaba arotza zinegotzi ibili zen. Karlistak hiru baserritakoak ziren, eta bat lehengusua. Tropak sartu zirenean, zerrenda eskatu zioten hari. Semeak ere EAJkoak zituen, eta ez zuen izenik eman. Altzan atxiloketarik ez zen egon.

Transkripzioa

-Salbatu giñan... hemengo osaba bat, e... nazionalistak zian hemen. Eta, e, ibilli zan konzejal osaba bat, arotza zana; bestia basarrikua zan, bestiak ez zakin /etzakin/ ezerre, baiño arotza honek bazun eskola ta zea. Ibilli zan kontzejal. PNVkua. Eta alkatia... Francon tropak hemen sartu zianian, sartu zian 13... 18 de julio a 13 de setiembre, treze de setiembre sartu zian honea. Ba ordun alkatia jarri zuten... karlistak zian hemen hiru basarri hoitakuak o, hoi esaten zuten. Eta bat lehengusua zan, karlista hoitakua. Eta etortzen zan gabian honea, ta hemen afaltze(n) zun. "Hi, ez diyotet ba... Lista eskatzen ziatek. Ta ez ziyotet emango. Jo, hau dek komeriya, hau! Lista eskatzen ziatek eta". Osabak bildur batekin... bueno. "Nola, nola emango ziotet ba, etxetik hasi bihar diat eta!". Horrek zitun PNVkuak semiak. Eta: "Etxetik hasi bihar diat, eta nola, nola emango zioet pa?". Eta etorri eta hemen afaltzen zun. Joeee. Ni erne asko bai ze... bueno!

-Emaztea: Hamalau urte.
-Bitoriano Roteta.
-Eta ez zun /etzun/ eman.
-Ez, ez, ez. Ez (zi)tziayon ezerre pasa.
-Orduan...
-Joe, ordun hartu eta nehikoa zun zea batian ra, pareta kontrara emango zizun, e! Jode. Hortan suertia izandu genun. Altzan ez zan /etzan/, ez zuten /etzuten/ iñor detenitu.

6. Gudarien erreleboa, Altzan

- **Erref:** DON-101/012
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gudari ibili ziren gazteak Bizkaia aldera joan ziren. Asturiastik Bartzelonara joan ziren. Propagandak zabaldutako gezurrak. Bi hilabetean, frontea Oartzunen; Altzan egiten zuten erreleboa. Erreketeak.</p>

Transkripzioa

- Batzuk gaztiak, ba, zia... eztakit gudaritan ibilli zian, ta haik alde in zuten Bizkaira, Astuarias edo Frantzia. Kontua zikiña geo asko ibilli da jo! Geo, Asturiastik eta jun zian gudariyak zeara... Bartzelona juan zian. Eta kontu batzuk atea zituen. Politika oso zikiña da, ta atea zituen "los gudariz habian sido...". Nola da?... "desarnaus y custodius".

7. Gudariak arma egokirik gabe

- **Erref:** DON-101/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:15:16. **Bukatu:** 00:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gudariak ziotena: hiru menditan hiru ametralladora jarrita, erreketiak ez zirela pasatuko. Eskopetekin zebiltzan. Francok bazuen motiboa EAJ gorrotatzeko, bere ustez. Umea zela, asko entzun zuen politikaz hitz egiten.</p>

Transkripzioa

- Hiru ametralladora. Hiru menditan. Esaten zuten jarri eta reketiak ez ziala /etziala/ pasako aurrea.
- Baña ez zuten /etzuten/ lortu.
- Ez zuten /etzuten/ lortu! Eskopetan, ehizeko eskopetakin ibiltzen zian ta! Zea.. berde hoyek kentut ba balak jarrita! Ez zeon /etzeon/ ezen armamentuik!
- Defentsa gutxi orduan?
- Geo, Francok PNV-i gorroto ikearriya zun, PNV-ntzako. Baño bazun motibua Francok e! Zeatikan hemen frentia bi hilabetian... Harek arrasatuko zun gudariyak ez baziyoten frente in! Bueno! Jode! PNV-i gorroto gogorra ziyen e! Jode!
- Eta...
- Bueno neretzako...

8. Bikarioa, nazionalisten kontrakoa

- **Erref:** DON-101/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Errepublika garaian nazionalistek zuten indarra. Karlista gutxi zeuden. Bikarioa karlista zen; hark nazionalisten kontra esaten zituenak. Don Felix Amiano.</p>

Transkripzioa

- Ta gerra aurretik, Replublika garaian eta...
- Republika garayan ta...
- Ze, ze giro?
- Hoyek PNV-kuak zian. Hemen hiru basarri zian; Arriya, zea... Antselmo... hiru basarri zian! Erreketiak. Karlitak.
- Eta bestela hemen...
- Bikayua re bai. Bikayua re.
- Bai?
- Sermoyian hala esan zun "nazionalistak!". Juan zianian, hemendikan zea tropak sartu zianian. "Nazionalistak puñala sartu!". Hoi bikayuai nik aitua. Ta geo, kura in! Iten zutela. Ta bitartian, nazionalistak euki zuten gordeta.

9. Eskolara La Sallera

- **Erref:** DON-101/019

- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>La Sallen ibili zen eskolan, Herreran. Etxean lana egin behar izaten zuenean, osabak eskutitza idazten zuen eskolarako, aitzakiekin. Ehizarako afizioa zuen, eta ez zuen ikasten jarraitu nahi. Fraideen hezkuntza.</p>

Transkripzioa

- Bueno, eskolara ta nora jua ziñan?
- Ni, La Sallea.
- La Sallera?
- Bai.
- La Salle Herreran dago.
- Eta...
- Hasi nitzan zea "cuarta, segunda, cuarta, primera". Pasa nitun, ba, ematen zuten guziyak. Dana pasa nun. Gero, nere hurrengua zan batxilerra hasi bihar zan. Danak pasa nitun nik hoyek.
- Eta ze juten...
- Eta etxian... etxian lana in hemen ganauan, idiyan aurrian. Eta geo, osabak karta ein, letra jarri, "a faltado por estar enfermo de anginas". Nei frailiak "Jo, pero como... oye tanto angiñas, ¿como tantas anginas? Tines que tomar aceite de hígado de bacalau". Nere artian...
- Eztakizu ondo, ez? Eta
- Beno, aprobatzen nun urtetik urtea aproba nun. Urtetik urtea pasa nun, eta kito! Geo etorri zan frailia, direktoria hemen zea este... nik basarriyan ta segitzeko perito ikasteko, eta nik osabai esaten "esan iozu /esayozu/ ezetz. Esan iozu /esayozu/ ezetz". Nik ehizeko afiliyua ikaragarriya ta nere osabakin ehizeko afiziyua ta.... Nik osabakin ta hemengo zea nakan, ta estudiantzea nahi zian perito iteko, baña nik osabai "esan iozu /esayozu/ ezetz. Esan iozu /esayozu/ ezetz".
- Ta ze esan zun osabak?
- Osabak... ni hartu niñutela, ba, hemen izateko zean. Beste illoba gehiyo re bazituela, bazitula baña...
- Eta zenbat urtera arte ibili ziñan La Sallen?
- Zenbat urte arte? Ba, aber ba... pasa nitun zortzi urte. Eta hasi nitzanian... hamabost urte arte. Hola.
- Eta hango frailiak eta gogorak?
- Bueno, neretzako asko eakusten zuten. Beste batzuk esaten duten ez zutela eakusten. Karo, eske nik baitut lagunak fraidiak zea esaten dutenak, baña bihar zuten hoyek, ba, erakusten espezial bat. Asimilatzen ez baldin badu eta aurea pasa harek ez du /eztu/ ezer egiten. Neretzako ondo eakusten zuten. Ondo eakusten zuten.
- Baña zorrotzak?
- A, bai. Hori bai. Hori bai. Reglakin jo re bai iten zuten, baño asko hola ez. Zenbait, zenbait gaxtuak... zenbat gaztiak tankera askotakuak gea, ta...
- Zu ikasle ona orduan?
- E?
- Ikasle ona ziñala...
- Bueno nik nahiko merito banakan zeatik asko faltatzen nun. Etxian lana in bihar... ganauan aurrian ibili bihar. Joe! Askotakuak nun, ta... bai. Hor goiko basarriyan zeon beste bat nere edadekua. Hil zan. Eta goizian, zain

eoten zan ni pasatzeko deberiak nei kopiatzeko. Harek ez zun /etzun/ ezerre in zeatikan hola ez da ikasten! Ez, baño daude, ba, ez dutela asimilatzen eta hoi bihar dute beste bat zeatzeko osatzeko. Hoi pasa zan ta...

- Eta han denetik ikasiko zenuten?

- Neretzako, nei asko gustazen zitan eskudiatzia. Zea 'historia España' ta 'historia sagrada' batez, baño...

10. Gerra aurretik, 'Xabierto' liburua

- **Erref:** DON-101/021
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:24:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Dena erdaraz ikasten zuten. Xabierto liburua ematen zieten erdaldunei fraideek, gerra aurretik. Pilotan eta futboleko ibiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Bai, bai dana erderaz. Gerra hasi zan. 'Xabierto' bazan libro bat atea zutena. Beno erdaldunentzat, nik ez nun biharrik, baño erdaldunei ematen zioten fraideak ze 'Xabierto'. Baño geo gerran kendu zuten hua.

- Karo.

- Holaxe.

- Eta zuen...

- Geo fubolian ta ibiltzen giñan ta

- Eta zuen jolasak?

- E?

- Zuen jolasak eta zeintzuk ziran?

- Neretzako pelotan e bai, baño jubolian parterua nintzan ta.

11. Eskuan ebakuntza egin zioten

- **Erref:** DON-101/022
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:24:12. **Bukatu:** 00:25:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Aiako Harrian tunela egiten ibili zenekoa. Pilotan jokatzen zuen, eta eskua minberatuta, ebakuntza egin behar izan zioten.

12. Aiako Harrian tunela egiten

- **Erref:** DON-101/024
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:27:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Aiako Harrian tunela egiten, soldadutzan. Bidea presoek egin zuten, baina tunela ez. Eskuz.</p>

13. Eskopeta "gorriei" eman osabak

- **Erref:** DON-101/026
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:27:32. **Bukatu:** 00:30:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ehizarako zaletasuna. Osaba ehiztaria zen. Karakolak biltzen zituen, eskopeta erosteko dirua ateratzeko. "Gorriei" eman zien osabak. Erreklamoan harrapatutako txoriak saltzen zituen. Erramua. Bixka. Prezioak.

14. Ehizarako denborarik ez

- **Erref:** DON-101/028
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:30:56. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Ehizan ibili nahi, baina asti gutxi izaten zuen: ganadua, eskola, meza... Altzara joaten ziren mezara, igandetán, eta gero eskolan galdetzen zieten, mezara joan ziren ala ez jakiteko. Ganadua. Txerria. Txerrikiak gatzetan, kargarekin. "Txerrimunik".</p>

15. Tiragoma eta tranpak

- **Erref:** DON-101/030
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Txinboak tiragomarekin harrapatzen zituen. Elurretan tranpa jartzen zuten. Jateko txori onena, kalandrea. Paseko txoriak, erreklamoan. Birigarroa, zozoa... eskopetarekin eta zepoarekin. Ehiza saldu egiten zuen, kartutxoak erosteko.

16. Lurra lantzen, eskuz

- **Erref:** DON-101/032
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:38:16. **Bukatu:** 00:40:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lurra nola lantzen zen lehen. Tresnak. Ilargia.

17. Berrikuntzak: rotabatorea eta segadora

- **Erref:** DON-101/034
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:40:51. **Bukatu:** 00:44:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Rotabatorea eta segadora nola iritsi zen Altzara. Erakustaldia egin zuten Aian, diputazioak antolatuta. Hamar elkartu behar ziren, prezio ona egiteko, baina ez zuten lortu. Inork ez zuen pausoa eman nahi.

18. Ganadua eta simaurra

- **Erref:** DON-101/036
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:46:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganadua. Iratzea ekartzen zuten, azpiak egiteko. Metak. Simaurra.

19. Osabaren komeriak, suge gorriak helduta

- **Erref:** DON-101/038
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:52:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Osabari sugeak heldu zion. Aitak Brasilen esperientzia izan zuen sugeekin. Ameriketako kontuak. Osabaren komeriak, sendatu ezinik. Kredoa alderantziz esaten zuen andrea, Gaztelunekoa. Martuteneko enplasteroa.</p>

20. Suge gorria gurdian

- **Erref:** DON-101/039
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:52:09. **Bukatu:** 00:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Suge gorriekin lotutako beste gertaera bat. Traktorearekin ganadu jatena ekarri ondoren, suge gorria agertu!

21. Sugeari beldurra

- **Erref:** DON-101/041
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:53:42. **Bukatu:** 00:54:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Beldurra hartu zion sugeari, osaba ikusita. Sendabelarrak.

22. Dotrina eta jaunartzea

- **Erref:** DON-101/045
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:59:21. **Bukatu:** 01:00:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Dotrina La Sallen ikasten zuten, euskaraz. Jaunartzea egitean ospakizunik ez. Jantzia.</p>

23. Dantza lotua eta makil dantza

- **Erref:** DON-101/048
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:01:51. **Bukatu:** 01:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

<p>Helduta dantza egiteagatik kongregaziotik bota zituzten bi. Makil dantzaria izan zen. Ambrosio Zurutuza zuten maisu. Batzokian ikasten zuten.</p>

24. Tabernak eta sagardotegiak

- **Erref:** DON-101/050
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:04:48. **Bukatu:** 01:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Tabernak eta sagardotegiak, Altzan. Kupeletik saltzen zuten baserriak. Pasaiaiko lagunekin ibiltzen zen, gorbata jantzita. Errenteriarra joaten ziren, eta Hernanira.

25. Fraideek ondo erakutsi

- **Erref:** DON-101/053
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:08:15. **Bukatu:** 01:09:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>La Salleko eskola ordaindu egin behar zen, asteko zazpi pezeta. Hobeto prestatuta zeuden publikoan baino.</p>

26. Harri apustua, festetan

- **Erref:** DON-101/055
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:09:34. **Bukatu:** 01:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Altzako festak, sanmartzialak eta santixabelak. Aitona behiekin joan zen harri probara.

27. Bertsolariak eta bertsopaperak

- **Erref:** DON-101/057
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:11:26. **Bukatu:** 01:12:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Bertsolariak: Txirrita, Zepai, Uztapide. Baserritarren eguna. Bizikleta karrera. Bertsopaperak Txirristakak saltzen zituen.</p>

28. Arrosarioa eta hiletak

- **Erref:** DON-101/062
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:15:10. **Bukatu:** 01:17:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Amonak asko errezatzen zuen. Norbait hiltzen zenean, arrosarioa esatera joaten zen. Laguntasuna. Gaubeila. Hildakoa bizkarrean. Alkatearen anaia, Zeledonio Roteta, hil zeneko anekdota.

29. Aitona hil zenekoa

- **Erref:** DON-101/064
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:17:39. **Bukatu:** 01:19:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Aitona hil zenean, izugarritzko pena hartu zuen. Nola hil zen. Don Roman Irigoien medikua. Martilunen zegoen apopilo. Juanola pilula bila bidali zuen Pasaiara.

30. Etxe bakoitzak bere tokia elizan

- **Erref:** DON-101/066
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:20:28. **Bukatu:** 01:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Hiru emakumek kapa jartzen zuten hileta egunean. Elizan etxe bakoitzak bere tokia zuen. Gizonak eta emakumeak aparte.</p>

31. Tolosako feriatik idiarekin oinez Altzaraino

- **Erref:** DON-101/071
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:23:47. **Bukatu:** 01:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Tolosara joaten zen feriara, eta handik Lizartzara bazkaltzera autoan. Kartetan jokatzeko zuten bazkaria. Aurretik, trenean. Ia urtero aldatzen zuten idia. Osabak gizendu egiten zituen. 10.000 erreal. Tolosatik oinez joan behar izan zueneko, euripean.

32. Perratzaileak

- **Erref:** DON-101/072
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:26:53. **Bukatu:** 01:27:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Perratzaileak Herreran eta Erreterian. Zaldiak Erreteriarra eta idiak Herrerara. Ferrak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com